J A K I N

Cuartel 2

T O L O S A

tel. 65.11.06

Harpidedun adiskide horri, agur!

Laster liburu eder bat zuri eskaintzeko aukera izango dugu: Axular-en GERO.

Euskal literaturaren liburu nagusi honen seigarren edizioa prestatu du Aita Villasantek. Honelako obra batek merezi duen bezala, argitalpen dotore eta oso landu bat egin nahi izan dugu.

Argitalpen honen prestatzailea ezaguna duzu: ez Euskaltzaindiako Buru bezala bakarrik, eta bai Axular eta beronen GERO liburua ongien ezagutzen duena bezala ere. Villasantek argitara zuen bostgarren aldiz ere, gaztelaniazko itzulpenaz eta sarrera on batez.

Oraingo argitalpen hau hobetua datorkizu oso. Villasantek, sarrera landuagotuaz aparte, ohar kritiko asko egin dizkio testuari. Argitaldi hau, JAKINek argitara eman zuen AXULAR-en HIZTEGIArekin lotuta doa, erreferentzietako zenbakiren bidez, horretarako gainera euskal testuaren ertzean hitz asko atera eta kolorez nabarmendu dira: ulertzearen aldetik, hizkuntzaren aldetik eta literaturaren aldetik garrantzi berezia duten hitzak, halegia.

Baina, sarrera luze, gaztelaniazko itzulpen, oinetako ohar eta ertzetako deietaz aparte, liburu osoa koloreszko irudi askoz apaindua doa. Apaingarri ezezik, liburuaren gai nagusiaren, hau da, alferkeriaren argigarri ere badira marrazkiak.

Gure JAKIN BIDE sailean joango da liburu hau. Enkoadernatua, Guaflex enkoadernakera dotorez.

Liburutegian 1.000 peztan salduko da liburua. Zuri, gure harpidedun eta laguntzaile zaren horri, 750 peztan eskaintzen dizugu.

Hala ere, gure liburuen artean hain prezio berezia duelako eta liburua bera ere berezia delako, ez zaitugu liburu hau hartzera behartu nahi, zure nahia ezagutu gabe.

Horregatik, liburu hau nahi ~~ez~~ bazenu, oharrerazi iguzu, eta zure nahiaren arabera jokatuko dugu.

GEROren argitaldi eder hau gogozkoa izango duzulakoan, eta gure liburuen programa osoa ere zure gogotakoa delakoan, agur handi bat oraingoz.

J A K I N

Estimado suscriptor:

Pronto tendremos ocasión de ofrecerle una hermosa obra: El GERO de Axular.

El P.Villasante ha preparado la sexta edición de esta monumental obra de la Literatura Vasca. La edición se presentará en un formato elegante como élla se merece.

El P.Villasante, bien conocido no sólo por ser Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, sino también por ser quien mejor conoce al personaje y la obra de Axular, ha sido quien la ha preparado. La quinta edición del GERO también fue preparada por el P.Villasante con traducción al castellano y con una introducción a la misma.

Esta nueva edición del GERO viene muy mejorada. El P.Villasante, aparte de enriquecer la introducción a la obra, ha añadido muchas notas críticas al texto. La edición va unida al "Axular-en Hiztegia", también publicado por JAKIN, mediante los números de referencia; además para eso, en el margen izquierdo del texto se han seleccionado las palabras más importantes, que se ponen de relieve en color; palabras que tienen un significado especial desde el punto de vista de la comprensión del texto, y desde el punto de vista lingüístico y literario.

Pero aparte de su larga introducción, de su traducción castellana, de sus notas a pie de página y de sus referencias en sus márgenes, todo el libro va enriquecido con numerosas ilustraciones en color, que además de su función decorativa, cumple la de resaltar el tema fundamental del libro, es decir, la pereza.

Este libro será incluído dentro de la colección JAKIN Bide, y encuadernado en un elegante guaflex.

El precio de este libro en librerías será de 1.000 pts. A Vd., estimado suscriptor y colaborador, se lo ofrecemos a 750 pts.

Siendo este libro especial en sí mismo y por su precio, comparándolo con el resto de nuestras publicaciones, no queremos obligarle a adquirirlo como suscriptor.

Por eso, le rogamos que si esta nueva edición del GERO le interesara, se sirva indicárnoslo y no se lo enviaremos.

Confiando que esta nueva edición del GERO, así como el resto de nuestra programación sea de su agrado, reciba nuestro cordial saludo.

J A K I N